



EBAZPENA, 2019ko martxoaren 4koa, Hezkuntzako sailburuordearena, zeinaren bidez deialdia egiten baitzaie Hezkuntza Sailaren mende dauden eta unibertsitatetik kanpoko irakaskuntza (heziketa-zikloak salbu) ematen duten ikastetxeei prestakuntza-jarduerak egin ditzaten 2019-2020 ikasturtean, ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruko berrikuntza-proiektuei lotuta (L3. Elebitasuna hezkuntza eleaniztunaren esparruan).

Heziberri 2020 Planaren "Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoak" barruan hartzen ditu 2020 Europako Esparruan ezarritako helburuekin zerikusia duten jarduteko ildo estrategiko nagusiak. Proiektu horrek paradigma-aldaketa garrantzitsua dakar; izan ere, kompetentzietan oinarritutako hezkuntzaren planteamendutik abiatzen da.

Abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuak, esparru hori garatu eta Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma ezarri baitu Euskal Autonomia Erkidegoan, oinarrizko zehar-kompetentziatzat hartzen du hitzezko komunikaziorako, hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia, horiek guztiak modu osagarrian erabilia, ganoraz eta egoki komunikatu ahal izateko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan. Era berean, diziplina barruko oinarrizko kompetentziatzat hartzen da hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia. Kompetentzia horren helburua da ahozko eta idatzizko testuak –euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan– erabiltzea, hizkuntza-aniztasunarekiko modu egokian, eraginkorrean eta adeitsuan komunikatzeko, bizitzako hainbat egoeratan, bai eta literaturaren inguruko hezkuntza bat garatzea ere, norbere burua eta inguruko mundua hobeto ezagutu ahal izateko.

Gainera, dekretu horretan ezartzen denez, hezkuntza-eskumenak dituen sailak elebitasuna sendotzea bultzatuko du hezkuntza eleaniztun baten barruan, indarrean dauden hizkuntza-ereduak hobetzen eta garatzen laguntzeko. Horretarako, lehentasunezko tratua bermatuko du euskararentzat, bi hizkuntza ofizialen erabilera sozial desorekatua konpentsatzeko, ikasleek Oinarrizko Hezkuntza amaitzean komunikazio-kompetentzia praktikoa eta eraginkorra izan dezaten euskaraz nahiz gaztelaniaz, eta atzerriko lehen hizkuntzan ere nahikoa. Hori guztia, atzerriko bigarren hizkuntza batean oinarrizko ezagutzak lortzea baztertu gabe, hizkuntza-proiektuan hala jaso duten ikastetxeetan. Halaber, ezartzen da sailak berak sustatuko duela hizkuntzen trataera integratua eta integrala, komunikazio-kompetentzia eleaniztuna garatzeko asmoz. Hori guztia, honako hauetan jasotako xedapenak betetzeko, hizkuntzaren alorreko EAEko arau-esparrua osatzen baitute: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa; 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa; eta 138/1983 Dekretua, uztailaren 11koa, Euskal Herriko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duena; orobat, abenduaren 22ko 236/2015 Dekretua.

Testuinguru horretan, Hezkuntza Sailak, 236/2015 Dekretu horren bosgarren xedapen gehigarria betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistema hobetzeko plana onartu du. Hobekuntza-plan horretan jasotako ildo estrategikoen artean dugu, alde batetik, "Elebitasuna hezkuntza eleaniztunaren baitan" izenekoa, eta, bestetik, "Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza". Hobetzeko alorren artean, beren-beregi aipatzen dira hauek: ingelesezko irakaskuntza areagotzea eta zabaltzea; irakasleek hizkuntzen didaktikan duten kompetentzia hobetzea, eta hizkuntzak irakasten dituzten irakasleek koordinatuta lan egiteko antolaketa-bideak ezartzea, hizkuntzen tratamendu integratuaren ikuspegia aplikatuz; hizkuntzakoak ez diren arlo eta ikasgaietako irakasleek arlo eta gai horren erabilera espezifikoetarako hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia modu integral eta sistematizatuan lantzeko beharrezko prestakuntza eskaintzea, eta ikastetxe guztiek hizkuntza-proiektua landu eta dinamizatuko dutela ziurtatzea.

Deialdi honi lotutako prestakuntzaren eta harekin zerikusia duten proiektuen helburua da hezkuntza-komunitate bakoitzak –bere ikasleen hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia maila eta inguru soziolinguistikoa zeintzuk diren jakinik, eta berriazko prestakuntza batetik abiatuz– diseina eta gara dezala bere irakurketa-plana, eta/edo abian jar ditzala erabaki didaktiko-metodologikoak hizkuntzek oro har eta euskararen berriazko tratamendu didaktikoak ikastetxean izango duten erabileraren eta antolamenduaren inguruan, ikasleek ahalik eta gehien gara dezaten kompetentzia hori. Erabaki horiek guztiek lagundu egingo dute ikastetxeko hizkuntza-proiektua gara dadin, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren barruan.



Hori horrela izanik, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 79/2017 Dekretuan eta gainerako xedapen aplikagarrietan ezarritakoaren arabera, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

##### 1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da zuzkidura ekonomikoak ematea Hezkuntza Sailaren mende dauden eta unibertsitatetik kanpoko edozein maila eta motatako irakaskuntza ematen duten ikastetxe publikoei (heziketa-zikloak bakarrik ematen dituztenei salbu), baldin eta, 2019-2020 ikasturtean, berrikuntza-proiektuak egiten badituzte ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzeko modalitate hauetakoren batean:

- A. Ikastetxeko hizkuntza-proiektua, irakurketa-plana lehentasuntzat hartuta eta hizkuntzen tratamendu integral eta integratuaren ikuspuntutik garatuta.
- B. Ikastetxeko hizkuntza-proiektu eleaniztuna, euskara ardatz hartuta eta curriculum-alor edo -gaiak atzerriko hizkuntzetan irakastea zentratuta.

Bi modalitateetan berrikuntza-proiektuek ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren garapenari lotutako prestakuntza jarduerak barne hartu behar dituzte.

##### 2. artikulua.– Onuradunak.

1. Deialdi honetako zuzkiduren onuradun izan daitezke Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoak, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitatez kanpoko edozein irakaskuntza-maila edo mota emateko baimena dutenak, salbu eta heziketa-zikloetako irakaskuntzak bakarrik ematen dituztenak.

2. Azkeneko lau ikasturteetan (2014-2015 ikasturtetik 2018-2019 ikasturtera) Eleaniztasunerantz-deialdien babesean ikastetxeko hizkuntza-proiektu eleaniztuna garatu duten ikastetxeak ezingo dira bildu deialdi honek aurreko artikuluko B modalitateko proiektuetarako jaso dituen zuzkiduretara.

##### 3. artikulua.– Zuzkidura ekonomikoa eta emate-prozedura

1. Helburu hori lortzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partiden kontura, hauek baliatuko dira: alde batetik, 500.000 euroko zuzkidura ekonomikoa, eta, bestetik, irakasle-baliabide pertsonalak, 1.584.665 eurotan zenbatetsiak.

2. Kopuru hori honela geratzen da banakaturik:

- a) 1. artikuluko A modalitaterako –hizkuntza-proiektuak, irakurketa-plana lehentasuntzat hartuta–, aurreikusitako zuzkidura ekonomikoaren eta baliabide pertsonalen % 50.
- b) 1. artikuluko B modalitaterako –hizkuntza-proiektu eleaniztunak–, aurreikusitako zuzkidura ekonomikoaren eta baliabide pertsonalen gainerako % 50a.

3. Proiektu-modalitate bakoitzari egingo zaio dagokion adjudikazio-prozedura, zeinean lehiaketa-prozeduraren bitartez emango diren zuzkidurak. Aurkeztutako eskabideak konparatuko dira, lehentasunak finkatzeko, eta, horretarako, III. eranskineko balorazio-baremoa hartuko da kontuan. Honako hauek soilik hornituko dira diruz, betiere, agindu honek ezartzen duen gehieneko zenbatekoa kontuan hartuta: 13. artikuluko ezartzen duen gutxieneko puntu-kopurua lortzen dutenen artean puntu gehien eskuratzen dituztenak. Balorazio-fasean lortutako puntuazioari jarraituko zaio, goitik beherako ordenan, onuradunen gehieneko muga bete arte edo, hala egokitzen denean, dagokion prozedurari esleitutako diru-kopurua agortu arte. Berdinketarik izanez gero, lehentasuna emango zaio ikasle bekadunen ehunekorik handiena duen ikastetxeari.



4. Lehenengo, A modalitateari dagozkien prozedurak ebatziko dira. Esleitutako zuzkidura ekonomikoa agortzen ez bada, soberakina B modalitateko proiektuetarako zuzkidurari gehituko zaio. Bigarrenik, B modalitateko proiektuei dagozkien prozedurak ebatziko dira. Esleitutako zuzkidura ekonomikoa agortu ez bada, eta A modalitateko proiekturik badago finantzaketarik lortu ez duena proiektu horientzako zuzkidura agortu delako, soberakina A modalitateko proiektuetarako zuzkidurari gehituko zaio.

5. Halako proiektuak martxan jartzeak ikasturte bat baino gehiagoko iraunaldia eskatzen du. Eskatutako laguntza 2019-2020 ikasturterako baino ez da. Laguntza ekonomikorik behar izanez gero proiektua hurrengo ikasturte batzuetan ere ezartzeko, alor horretako urteko deialdietan eskatu beharko da.

4. artikulua.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta diru-laguntzen zenbatekoa

1. Ikastetxe bakoitzak deialdi honen 1. artikuluan adierazten diren proiektu-modalitateetako baterako bakarrik eskatu eta jaso ahal izango du finantzaketa deialdi honen kontura.

2. Ematen diren zuzkidurak hauetarako bakarrik erabiliko dira: proiektuei buruzko prestakuntzarekin zuzeneko zerikusia duten gastuei aurre egiteko, hala nola hizlarien kontratazioa, proiektuari lotutako jarduerak eta prestakuntzari laguntzeko materiala erostea.

3. Ikastetxe bakoitzari ematen zaion zuzkidura ekonomikoaren zenbateko osoak hizkuntza-proiektuen bi modalitateetarako sartu diren jardueren guztizko kostua estali ahal izango du. Gehienez ere, 100 euro ordainduko dira proiektuan jasotako prestakuntza-jarduera bakoitzean emandako ordu bakoitzeko. Jarduera emateari egotzitako gastu gisara zenbatu ahal dira honako hauek: batetik, prestakuntza-jardueraren kostua, prestakuntza ematen duen erakundeak aurkeztutako aurrekontuaren arabera; eta, bestetik, ikastaroa emango duen irakaslearen joan-etorriek, ostatu hartzeak eta otorduek eragindako gastuak, baldin eta prestakuntza-erakundeaz kanpoko bada eta prestakuntza-saio horiek beharrezkotzat jotzen badira. Inolaz ere ez dira prestakuntza-jardueraren kostutzat joko jardueran parte hartzen duten irakasleen joan-etorrietarako edo jan-edanetarako gastuak.

4. Deialdi honi lotutako prestakuntza-jarduerak 10 ordukoak izan beharko dute, gutxienez.

5. artikulua.- Prestakuntzaren ezaugarriak

1. Deialdi honek hau lagunduko du diruz: irakasleen prestakuntza, ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzeko berrikuntza-proiektuei lotua. Hau izango da diruz lagundu daitezkeen prestakuntza:

- a) Prestakuntza-jarduerak, Irakurketa Planaren diseinuari eta garapenari lotuak
- b) Prestakuntza-jarduerak, ikasleen irakurmena garatzen laguntzeko metodologia aktibo eta berritzaileekin zerikusia dutenak (batez ere, euskaraz).
- c) Prestakuntza-jarduerak, euskararen (eskolatze-hizkuntza) berriazko tratamendu didaktikoa sendotzekoak, bai eskolatze-aldiko lehen urteetako egokitzapen didaktikoak definitzeko, bai hizkuntzakoak ez diren arloetan hizkuntzen tratamendu integralean sakontzeko.
- d) Prestakuntza-jarduerak, alor eta gai guztietako irakasleei zuzendutakoak, ikasleen komunikazio-gaitasunaren garapena hobetu eta hizkuntzen tratamendu integratua eta integralari ekiteko
- e) Prestakuntza-jarduerak, hizkuntzen irakaskuntzarekin eta atzerriko hizkuntzan ematen diren gaien irakaskuntzarekin zerikusia dutenak, metodologia aktibo eta berritzaileak garatzeko, hizkuntzen tratamendu integratua eta integrala sustatze aldera.
- f) Deialdiaren B Modalitaterako bakarrik. Prestakuntza-jarduerak, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 edo C1 mailakoak, gutxienez 50 ordukoak, bi urteko epean ziurtagiri egokia (B2 edo C1) lortzea helburu duten irakasleek atzerriko hizkuntzan duten hizkuntza-gaitasuna lortzera bideratuak.



2. Deialdi honetatik kanpo geratuko da atzerriko hizkuntza batean Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 edo C1 mailatik beherako gaitasuna hobetzeari lotutako prestakuntza, helburu hau ez duenean: irakasleek curriculum-gaiak atzerriko hizkuntza batean emateko ziurtagiri egokia lortzea (B2 edo C1) bi urteko epean. Beheragoko mailetarako hizkuntza-prestakuntzarako, hauek baliatu ahal izango dituzte interesa duten irakasleek: Hizkuntza Eskola Ofizialen egitura (matrikulatzeko lehentasuna baitute irakasleek) eta Hezkuntza Sailak irakasleen etengabeko prestakuntzarako eskaintzen dituen ikastaroak (Prest\_Gara).

3. Proiektuan diharduten irakasleen % 80aren parte-hartzea beharko da prestakuntza-jarduera horietan.

6. artikulua.- Ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzeko berrikuntza-proiektuen ezaugarriak.

1. Ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzeko berrikuntza-proiektuek, bi modalitateetatik edozeinetakoak direla, atal hauek eduki beharko dituzte:

- Diagnostikoa, hauek hartuko dituena:
  - o Hobetzeko arloak, ikasleek euskaraz, gaztelanian eta ingelesez izandako emaitzak –barne- eta kanpo-ebaluazioetatik aterak – aztertze ondorioztatzen direnak.
  - o Hobekuntza-arloak, analisiaren ondorioetatik abiatuta.
  - o Ikastetxearen ibilbidea hizkuntzekin zerikusia duten esperientziatan.
- Hartzaileak:
  - o Parte hartuko duten irakasleak. B modalitateari dagokionez, plantillako zein irakasleek hartuko duten parte proiektuaren garapenean, bai eta aurreikuspen bat ere: ikastetxeak, proiektua ezartzearen ondorioz, zer behar izango duen edukiak atzerriko hizkuntza batean emateko gaitasun egiaztatuko pertsonalari dagokionez, kontuan hartua izan dadin ikastetxeko lanpostu-zerrenda prestatzerakoan.
  - o Berrikuntza-proiektua zer hezkuntza-talde eta -mailatan zehaztuko den.
- Zer helburu estrategiko garatuko den proiektuaren iraunaldian. Plangintza eta exekuzio-egutegia, barne hartuta astero zenbat koordinazio-saio beharko diren proiektuaren garapena bermatzeko.
- Ikasturtean garatuko diren helburu orokorrak, haien ondoriozko ekintzak, arduradunak, tenporalizazioa eta lorpen-adierazleak.
- Irakasleentzat aurreikusitako prestakuntza-jardueren aurrekontua.
- B modalitateko berrikuntza-proiektuen kasuan, zehaztu egin beharko da hizkuntzez kanpoko zer gai emango den (edo emango diren) atzerriko hizkuntzan, bai eta zenbat ordu izango dituen atzerriko hizkuntzak eta zenbat ordu emango diren atzerriko hizkuntzan.
  - Atzerriko hizkuntzan irakatsiko diren irakasgaiak aukeratzeko orduan, irakasleek kontuan hartuko dute hau: ikasle-talde baten barruan, atzerriko hizkuntzan emandako ordu-kopurua berdina izatea denentzat, zein arlo edo irakasgai aukeratzeko dituzten kontuan izan gabe.
  - Euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntzan emandako ordu-kopuruari eta irakasgai dagokionez, adieraziko da zein den hasierako egoera eta zer garapen aurreikusten den bi urteetan, halako moldez non, ekitatearen mesedetan, maila beraren barruko ikasle guztiak eta ikastetxeko maila guztiak hartuko dituen, arian-arian.



- Garapen horrek kontuan hartuko du ikastetxearen egoera soziolinguistikoa, eta ezingo du ekarri A eta B ereduetan euskaraz irakatsi beharreko ordu-kopurua txikiagoa izatea. Adierazi beharko da, talde bakoitzari dagokionez, zein irakasgairi eta zein irakats-hizkuntzari kenduko zaizkion orduak edukiak atzerriko hizkuntzan emateko.

2. Deialdi honen ondorioetarako, hauek hartuko dira irakurketa-plana lehentasuntzat duten hizkuntza-proiektuak garatzeko berrikuntza-proiektutzat (A modalitatea): hizkuntzen inguruko erabaki didaktiko-metodologikoak praktikan jartzen dituzten proiektuak, betiere ikuspegi integratu eta integral batetik, ikasleen ahozko zein idatzizko erabilera eta ulermena hobetzeko eta hizkuntza-komunikazioan duten kompetentzia hobetzeko xedez. Deialdi honetatik kanpo geratzen da irakasleek atzerriko hizkuntzan duten hizkuntza-gaitasuna hobetzeari lotutako prestakuntza oro.

Adibidez, alderdi hauei buruzko erabakiak bil ditzake proiektuak:

- Irakurmenaren inguruko jardueren plangintza eta antolaketa, jarduerok era programatu eta sistematikoan txertatzeko ikastetxeko ziklo eta etapa guztietako alor eta gaietan.
- Irakurketari eta bere inguruko jardueri buruz proposatzen diren ekimenak jasotzea (hizketaldiak, eztabaidak, bakarriketak, bertsoak eta neurtitzak, aurkezpenak, antzerkia...).
- Ahozko hizkuntzaren tratamendu metodologikoa (estrategiak, jarduerak...) eta ebaluazioa alor, eremu eta gai guztietan.
- Irakurketaren eta idazketaren tratamendu metodologia (estrategiak, jarduerak...) eta ebaluazioa alor, eremu eta gai guztietan.
- Ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko eta sortzeko prozedurak.
- Ahozko eta idatzizko testuak ebaluatu eta zuzentzeko irizpideak, teknikak eta tresnak.
- Literatura-hezkuntzaren inguruko lan partekatua.
- Ikasgelan berregin, egokitu, aplikatu eta baloratzea hizkuntzen tratamendu integraturako programaren barruan garatutako ikasmaterialen bat.
- Ikasgelan prestatu, egokitu, aplikatu eta baloratzea hiru curriculum-hizkuntzetarako integratutako sekuentzia didaktiko bat.
- Gramatika-edukiak hizkuntzen artean banatzea hizkuntzetako bakoitzean landutako testu-generoak kontuan hartuta.

Zerrendatutako ezaugarri horiek euskararen (eskolatze-hizkuntza) berariazko tratamendu didaktiko bat sendotzera bideratutakoak izan litezke, bereziki; bai eskolatze-aldiko lehen urteetako egokitzapen didaktikoak definitzeko, bai hizkuntzakoak ez diren arloetan hizkuntzen tratamendu integralean sakontzeko, berariazko hizkera garatuta.

Deialdi honen babesean zuzkidura ekonomikoak eta baliabide pertsonalak hartzen dituzten ikastetxeek, irakurketa-plana ardaztat duen ikastetxeko hizkuntza-proiekturako hartu ere, Hezkuntza Sailaren esku jarri beharko dituzte hauek, Ikasgunea plataformara igota: bere proiektuaren barruan prestatu dituzten material, unitate didaktiko eta tresnak.

3. Deialdi honen ondorioetarako, hauek hartuko dira ikastetxeko hizkuntza-proiektu eleaniztunak garatzeko berrikuntza-proiektutzat (B modalitatea): neurri espezifiko batzuk praktikan jartzen dituztenak, helburutzat hartuta atzerriko hizkuntzen ikaskuntza hobetzea eta ikasleen profil eleaniztuna eta kultura-artekoa garatzea, eta bitartekotzat, berriz, irakasleen prestakuntza eta eguneratze metodologikoa, hizkuntzaz kanpoko alor edo gai bat gutxienez atzerriko hizkuntzan ematea ahalbidetuko duena.

Adibidez, alderdi hauei buruzko erabakiak bil ditzake proiektuak:

- Komunikazio-ikuspegia, ikasleen gaitasuna hobetzea bilatuko duena hizkuntzaren bost trebetasunetan, eta, bereziki, mintzamenean.
- CLIL metodologiaren aplikazioa (edukiak eta atzerriko hizkuntzak batera ikastea)
- SIOP protokoloaren aplikazioa (Sheltered Instruction Observation Protocol).
- Lankidetzeta eta proiektukako lana, ikastetxearen Europako eta nazioarteko dimentsioaren aldekoa.
- Irakurketaren eta idazketaren tratamendu metodologia (estrategiak, jarduerak...) alor, eremu eta gai guztietan.



## 7. artikulua.– Betekizunak.

Betekizun hauek bete beharko dituzte eskari guztiek:

- a) Gutxienez bi urterako berrikuntza-proiektu bat aurkeztea, beste bi urtez luza daitekeena. Oraingo ikasturterako lan-plana hartu beharko du, 6. artikuluko lehenengo apartatuan ezarritako edukiekin bat etorruta.
- b) Ordezkaritza Organo Gorenaren (OOG) onespena izatea proiektua gauzatzeko, eta akordio hori Ikastetxeko Urteko Planean jasotzea.
- c) Koordinatzaile bat izendatzea, proiektuaren jarraipena egin dezan.
- d) Proiektuarekin lotutako prestakuntzan parte hartzeko konpromisoa bereganatzen duen gutxienezko langile-kopuru bat izatea, proiektua egin egingo dela ziurtatze aldera. A modalitatearen kasuan, irakasleen % 80 gutxienez.
- e) Proposatutako proiektuan gutxienez bi urtez parte hartzeko konpromisoa.

## 8. artikulua.- Ziurtagiriak

Parte hartzen duen irakasle bakoitzak prestakuntza-jardueratan izandako esku-hartzeak proiektua garatu eta burutzeko jarritako orduen % 80 gainditzen badu, eta proiektu horren exekuzio-memoriak balorazio positiboa jasotzen badu, parte-hartzaile bakoitzari ofizioz eta banaka ziurtatuko zaizkio ezarritako orduak: 30 ordu. Hala ere, ikastetxe batek ikasturte berean proiektu-deialdi batean baino gehiagotan parte har dezakeenez, inoiz ez zaio irakasle berari emango 90 ordu baino gehiagoren ziurtagiririk Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako deialdien barruan egindako prestakuntza-proiektuengatik.

## 9. artikulua.- Giza baliabideak eta laguntzak

1. Ikastetxeko zuzendaritza-taldeari dagokio proiektua martxan jartzearen ardura, eta irakasle baten esku utziko du koordinazio-funtzioa. Irakasle horrek proiektuaren garapenaren berri emango dio aldiro ikasketa-burutzari
2. Ikastetxeak, bere burua antolatzeko autonomiaren barruan, koordinatzaileen eskola-orduak egokitu ahal izango ditu, hala kopuruari nola banaketari dagokienez, proiektuan duten funtzioarekin bateragarri egiteko; betiere, kasuan kasuko ikasketen ikasturte-hasierako zirkularretan jasotako araudia betez eta ikastetxearen ordutegi-aukeren arabera.
3. Deialdi honekin zerikusia duen proiekturen bat onartzen zaion ikastetxe orori izendatuko zaio Berritzegunean erreferentziako aholkulari bat gutxienez, eta hura arduratuko da, ikastetxean proiektua koordinatzeaz arduratzen den pertsonarekin batera, onartutako proiektuaren jarraipen- eta ebaluazio-lanak egiteaz. Era berean, ikastetxeek, hizkuntzei buruzko planteamendu integratu eta integral batetik, eskualdeko Berritzegunearen zuzeneko aholkularitza eduki ahal izango dute prozesu osoan zehar prestakuntza-jarduerari dagokienez.
4. Ikastetxe onuradunei ordu-kreditu bat esleituko zaie proiektua garatu eta ezartzeko: gehienez ere, sei ordu.
5. Ikastetxe onuraduna hizkuntza-normalizaziorako proiektu bat garatzen ari bada, 9 ordukoa izango da gehieneko ordu-kreditua, bi proiektuak ikastetxeko hizkuntza-proiektuan elkartzen dira-eta.
6. B modalitateko berrikuntza-proiektu bat garatzen duten ikastetxe onuradunek lehentasuna izango dute mintzapraktikako laguntzaileak esleitu diezazkieten 2019-2020 ikasturtean.

## 10. artikulua.- Eskabideak aurkeztea

1. Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau EHAA argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2019ko apirilaren 4an bukatuko. Eskaria modu elektronikoan aurkeztuko da, eskabide normalizatu bidez, datu guztiak behar den moduan beteta. Eskabide-eredua euskadi.eus webguneko egoitza elektronikoko honetan egongo da eskuragarri:



<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/eleaniztasunerantz-2019>

2. Eskabidea guztiz osatuta ez badago, errekerimendua egingo zaio eskaria aurkeztu duen ikastetxeari, hamar egun naturaleko epean bete dezan falta dena edo nahitaezko dokumentuak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, bere eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

#### 11. artikulua.- Organo kudeatzailea

Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak kudeatuko du deialdi honetan aurreikusitako zuzkidura ekonomikoak esleitzeko prozedura.

#### 12. artikulua.- Eskari-aukeraketarako batzordea.

Batzorde batek egingo du onartutako eskarien aukeraketa. Batzorde horrek kide hauek izango ditu:

- Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzako Irakasleen Hobekuntza Zerbitzuko arduraduna, batzordeburu.
- Berritzegune Nagusiko bi aholkulari, hizkuntza-arloan adituak direnak.
- Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak izendatutako bi teknikari. Horietako batek idazkari lanak egingo ditu.

#### 13. artikulua.- Eskariak aukeratzeko prozedura.

1. Honela egingo da proiektuen aukeraketa: eskariak baloratzeko baremoaren arabera, III. eranskinen baitago.

2. Kanpoan geratuko dira betekizunak betetzen ez dituzten eskariak, bai eta hauek ere: lan-planaren balorazioaren arabera (III. eranskineko 1.1 apartatua) gutxienez 11 puntura iristen ez diren proiektuenak.

3. Eskariak egokiro baloratzeko, ebaluazio-batzordeak eskualdeko Berritzeguneari eskatu ahalko dizkio ikastetxeek aurkeztutako proiektuei buruzko txostenak.

4. Ebaluazio-batzordeak egingo ditu ebazpen-proposamenak, eta Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariari helaraziko dizkio. Proposamen horietan hauek sartuko dira: aukeratutako proiektuen zerrenda, eta proiektu bakoitzarentzat proposatzen den zuzkidura ekonomikoa eta ordu-kreditua. Gainera, kanpoan utzitako eskabideen zerrenda sartuko da, kanpoan uzteko arrazoiak aipatuta.

#### 14. artikulua.- Ebazpena.

1. Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariari dagokio eskariak ebaztea, ebaluazio-batzordeak proposatuta. Ebazpena elektronikoki jakinaraziko zaie interesdunei, eta onartutako eskariak jasoko ditu, eta bakoitzari emandako zuzkidura ere adieraziko du. Gainera, kanpoan utzitako eskabideen zerrenda sartuko da, kanpoan uzteko arrazoiak aipatuta.

2. Hamar egun naturaleko epea ezartzen da, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrerakoa, ikastetxe interesdunek erreklamazioak aurkez ditzaten ebazpenaren aurka. Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak ebatziko ditu erreklamazioak.

3. Erreklamazioak aztertu ondoren, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak behin betiko ebazpena emango du, eta ikastetxeei jakinaraziko die aurreko apartatuan aipatutako bideak erabiliz. Ebazpenak jasoko du, batetik, aukeratutako ikastetxeen zerrenda (emandako zuzkidura ekonomikoa eta ordu-kreditua adierazita), eta, bestetik, ezezkoa eman zaien eskaeren zerrenda, arrazoiak aipatuz.

4. Prozedura ebazteko epea amaitu eta ebazpena jakinarazten ez bada, eskaria ezetsi zaiela jo dezakete interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1. artikulua onorioetarako.



#### 15. artikulua.- Zuzkiduren bateraezintasuna.

Zuzkidura ekonomiko hauek bateraezinak dira helburu bererako beste edozein laguntza eskuratzearekin, berdin dio funts publikoetatik zein pribatuetatik datorren.

#### 16. artikulua.- Zuzkidurak ordaintzea.

Zuzkidura bi zatitan ordainduko da. Honako aurreikuspen hauen arabera izango dira ordainketa horiek:

- a) Lehenengo ordainketa emandako zenbateko osoaren % 50 izango da, eta deialdiari buruzko ebazpena jakinarazi eta hilabeteko epean egingo da, tartean laguntzari berariaz uko egin ezean.
- b) Bigarrenak gainerako zenbatekoa hartuko du, eta ikasturtearen amaieran egingo da, aurkeztuko den egiaztatze dokumentazioa aztertu eta proiektuaren memoriak balorazio positiboa jaso ondoren.

#### 17. artikulua.— Aukeratutako ikastetxeen berariazko betebeharrak.

Honako hauek bete beharko dituzte, edozein kasutan, deialdi honetako zuzkiduren onuradun diren ikastetxeek:

- Eman zaien laguntza onartzea eta, laguntza zertarako eman den, bada horretarako erabiltzea zehazki. Ildo horretatik, hamar eguneko epean –deialdiaren ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera– ikastetxe onuradunek berariaz eta idatziz laguntzari uko egiten ez badiote, onartutzat joko da.
- Zuzkidura emateko kontuan hartutako edozein inguruabar aldatuz gero, horren berri ematea Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari.
- Lankidetzan jardutea Tokiko Berritzegunearekin, Hezkuntza Ikuskaritzarekin eta Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzarekin aholkularitza- eta jarraipen-lanetan.
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak beren funtzioetan dihardutela eskatutako informazio guztia ematea, deialdi honen kontura jasotako zuzkidura ekonomikoak direla eta.
- Eskatutako modalitateko berrikuntza-proiektua garatzea hizkuntza-proiektua gauzatze aldera aurkeztutako eskariaren arabera, eta, ikasturtearen amaieran, dagokion memoria egitea, 2020ko ekainaren 15a baino lehen entregatuko baita. Memoria horretan zehaztuko dira praktika didaktikoari eta hizkuntzen tratamenduaren hobekuntzari buruzko erabaki guztiak, eta urteko planean sartuko dira, eta zuzeneko eragina izango dute programazioetan.
- Zuzkidura ekonomikoa jaso duten ikastetxeak lankidetzan ariko dira Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzarekin eta EHUREkin, eta praktiketako ikasleak onartuko dituzte (Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako gradu etakoak, baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleak Prestatzeko Unibertsitate Masterrekoak ere), etorkizuneko irakasleak ikastetxe berritzaileetako benetako hezkuntza-praktiketan integra daitezzen laguntzeko.
- Konpromisoa hartzea proiektuen garapenean ikasitakoa hezkuntza-komunitate osoari helarazteko prestakuntza-saio, jardunaldi edo ikastaroen bitartez, gaitzat hartuta hizkuntza-proiektuaren garapena, hizkuntzen tratamendu integratua eta integrala eta proiektu eleaniztunak.

#### 18. artikulua.- Laguntzen justifikazioa

1. Modalitatearen batean proiekturen bat onartzen zaien ikastetxeek haren bilakaerari eta ebaluazioari buruzko memoria bat aurkeztuko dute 2020ko ekainaren 15a baino lehen. Memoria eta erantsitako dokumentazio guztia bitarteko elektronikoz aurkeztuko dira, Ikasgunea plataformaren bidez.
2. Memoriak barnean hartu beharko ditu jardueren zerrenda eta haien garapena (edukia, zenbatek hartu duen parte, noraino bete diren proposatutako helburuak).
3. Era berean, hauek zehaztuko ditu memoriak: proiektuan zehar zer erabaki hartu den, eta martxan jarri, praktika didaktikoari eta ebaluazioari buruz.





4. Prestakuntza-jardueren kostua zein izan den adieraziko da, jarduera horiek entitate pribatuek eman badituzte, bai eta proiektuari lotutako jarduerak egiteak edo prestakuntzari laguntzeko materiala erosteak zenbateko kostua izan duen ere. Ikastetxeak gorde egingo ditu egindako gastuaren egiaztagiriak, Administrazioak dokumentazio hori eskatzen badio ere.
5. Emandako ordu-kredituaren erabilera egiaztatze aldera, ordu-kreditu horri esker egindako jarduera justifikatzeko dokumentuak aurkeztu beharko dituzte ikastetxeek (egindako bilerak, hartutako erabakiak, eta abar).
6. Memoriak horrek, gainera, barnean hartuko du ikastetxe bakoitzeko zuzendaritzaren ziurtagiri bat, dagozkion irakasleen parte-hartzeari buruzkoa, beren-beregi adieraziko duena guztira egindako orduen zer ehunekotan parte hartu duen irakasle bakoitzak.
7. Hezkuntza-administrazioak frogagiriak, fakturak edo agiriak eskatu ahal izango dizkio erakunde onuradunari, emandako laguntzaren kontura egindako gastuen egiaztagarri. Laguntzak justifikatzeko ez dira kontuan hartuko proiektuaren prestaketa-, koordinazio- eta jarraipen-lanekin lotutako gastuak.

#### 19. artikulua.- Jarraipena eta ebaluazioa.

1. Dagozkion Berritzeguneko batzorde pedagogikoak proiektuaren jarraipena egingo du (jarduerak, denbora-antolaketak, arduradunak, parte-hartzea...) ikasturte akademikoan, eta deialdi honi lotutako proiektuen garapenari buruzko txostena aurkeztuko du ikasturte amaieran. Txosten hori Irakasleen Hobekuntzarako Zerbitzuari eta Hezkuntza Berritzatzeko Lurralde Burutzari igorriko zaie.
2. Ikasturtean zehar gorabehera esanguratsurik gertatuz gero proiektuen garapenean, eskualdeko Berritzeguneko zuzendaritzak Lurralde Burutzari eta Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari emango die horren berri, bigarren zuzendaritza horrek neurri egokiak har ditzan deialdi hau behar bezala bete dadin.
3. Ikastetxeko urteko planean jaso behar baitira, proiektuak zenbateraino betetzen diren kontrolatuko du Hezkuntzako Ikuskaritzak ikastetxeetara egiten dituen bisitaldietan. Ez-betetzerik ikusiz gero, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari jakinaraziko dio.

#### 20. artikulua.- Ez-betetzeak.

1. Edozein ez-betetze egiaztatuz gero zuzkidura ekonomikoa ematea eragin zuten baldintzetan, jasotako zenbatekoak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharra sortuko da.
2. Dirua itzuli beharko da hauetakoren bat gertatuz gero:
  - a) Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak jakitea zuzkiduraren xedeko proiektuak ez direla gauzatu edo ez direla iritsi diseinatzerakoan aurreikusitako gutxieneko gauzatze-mailara.
  - b) Onuradunek ez betetzea deialdi honen 17. artikuluko betebeharrak edo EAEko aurrekontuen konturako laguntzen onuradunei dagozkien betebeharretatik beste edozein.
  - c) Ikastetxeak ez justifikatzea laguntza erabili duela laguntza eman zitzaion helburu zehatzetarako.
3. Itzulketarako, abenduaren 17ko 698/91 Dekretuan horretarako ezarritako prozedura beteko da, hargatik eragotzi gabe bidezkoak diren gainerako ekintzak; dekretu horren bidez arautzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra, eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen. Bestalde, aipatutako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira, legezko ondorio guztietarako.

#### 21. artikulua.– Datuen babesa



Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honetako parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzako Prestakuntza eta Berrikuntza Proiektuak izeneko 19. fitxategian sartuko dira, diru-laguntzen deialdi hau kudeatzeko eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko. Fitxategi horren arduraduna Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza da. Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideez baliatzeko, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzara jo behar da, honako helbide honetara: Donostia kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten lagunek baimena ematen diote Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiazta dezan aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko martxoaren 4an.

Hezkuntzako sailburuordea  
MIREN MAITE ALONSO ARANA



## I. ERANSKINA

## A MODALITATERAKO LAN-PLANA: IKASTETXEKO HIZKUNTZA-PROIEKTUAK, IRAKURKETA-PLANA ARDAZTZAT HARTUTA ETA HIZKUNTZEN TRATAMENDU INTEGRAL ETA INTEGRATUAREN IKUSPUNTUTIK GARATUTA

IKASTETXEAREN DATU OROKORRAK: KODEA

--	--	--	--	--	--

Proiektuaren izena:.....

## Diagnostikoa:

Ikastetxearen ibilbidea hizkuntzekin zerikusia duten esperientzietan

Ikasleen emaitzak euskarari, gaztelanian eta atzerriko hizkuntzan.

Premiak aurkitzea eta diagnostikoa egitea. Hobekuntza-arloak, ikasleen emaitzen azterketatik abiatuta.

## Proiektuaren helburuak:

- .
- .
- .
- .

## Plangintza

a)

	LEHEN HEZKUNTZA	BIGARREN HEZKUNTZA	BATXILERGOA	HHI
Ikastetxeko ikasle-taldearen guztizko kopurua				
Proiektuan parte hartzen duten ikasle-taldearen guztizko kopurua				
Irakasleen guztizko kopurua				
2019-2020 ikasturtean proiektuan parte hartuko duten irakasleen kopurua				

b) Proiektuaren barruko ekintzak 2019/2020 ikasturtean:

c) Proiektuaren barruko ekintzak 2020/2021 ikasturtean:

d) Astero zenbat koordinazio-saio proiektuaren garapena bermatzeko.

e) Proiektua ebaluatzeko irizpideak. Emaitzak eta inpaktua neurtzeko adierazleak



**Prestakuntza-ekintzak<sup>1</sup>**((erantsitako fitxaren arabera zehaztuko dira prestakuntza-ekintzak):

- .
- .
- .

**JARDUERA**.....

- 1.- Prestakuntza-jardueraren justifikazioa (proiektuarekiko erlazioa)
- 2.- Prestakuntza-jardueraren helburuak.
- 3.- Edukien definizioa.
- 4.- Jardueraren egitura: non egingo den, egutegia, orduak guztira, zati bereziak eta haien denbora-antolaketa.
- 5.- Jardueraren ebaluazioa, jarritako helburuen arabera: ebaluazio-irizpideak eta -adierazleak.
- 6.- Zer erakunde aurreikusi den prestakuntza-jarduera emateko.
- 7.- Prestakuntzaren aurrekontua, baldin eta erakunde pribatu batek ematen badu, edo proiektuari lotutako jarduerak egiteko aurrekontua, edo prestakuntzari laguntzeko materiala erosteko aurrekontua, eta justifikazioa.
- 8.- Eskatutakoa, guztira.

**PRESTAKUNTZA-JARDUEREN DATUEN LABURPENA – A MODALITATEKO HIZKUNTZA-PROIEKTUA:**

			AURREKONTUA		
Jardueraren izena	Orduak	Plazak	Prestakuntza-emailearen gastuak	Material-gastuak	Guztizko kostua jarduera bakoitzeko
				<b>A</b>	<b>modalitatean eskatutakoa, guztira</b>

<sup>1</sup> Fitxa bana erantsi aurreikusitako prestakuntza-jarduera bakoitzeko



## II. ERANSKINA

## HIZKUNTZA-PROIEKTU ELEANIZTUNEN LAN-PLANA (B MODALITATEA)

IKASTETXEAREN DATU OROKORRAK: KODEA

--	--	--	--	--	--

## Diagnostikoa:

Ikastetxearen ibilbidea esperientzia eleaniztunetan.

Ikasleen emaitzak euskaraz, gaztelanian eta atzerriko hizkuntzan.

Irakasgaiak atzerriko hizkuntzan irakasteari lotutako hobekuntza-arloak, ikasleen emaitzen azterketatik abiatuta.

## Helburuak:

Berrikuntza-proiektu eleaniztuneari gauzatu nahi diren ekintzak eta neurriak

## Plangintza:

a)

	LEHEN HEZKUNTZA	BIGARREN HEZKUNTZA	BATXILERGOA	HHI
Ikastetxeko ikasle-taldearen guztizko kopurua				
Proiektuan parte hartzen duten ikasle-taldearen guztizko kopurua				
Irakasleen guztizko kopurua				
2019-2020 ikasturtean proiektuan parte hartuko duten irakasleen kopurua				
Atzerriko hizkuntzan B2 mailako titulazioa edo goragokoa ziurtatu duten irakasleen kopurua				
Atzerriko hizkuntzaren bat (ingeleza, frantsesa, alemana...) irakasgai gisa ematen duten irakasleen kopurua				
Irakasgairan bat atzerriko hizkuntzan ematen duten irakasleen kopurua (aurreko atalekoak kanpo utzita)				

## B) Proiektu eleaniztunaren 2019/2020 ikasturteko aplikazioaren laburpena:

Etapak <sup>2</sup>	Maila	Taldea <sup>3</sup>	Eredua A/B/D	Ikasle-kopurua		Proiektuan parte hartuko duten irakasleak		Ingelesez emateko alorrak	Ingelesez emateko ordu kop.	Atzerriko beste hizkuntza batean emateko alorrak	Atzerriko beste hizkuntza batean emateko ordu kop.	Euskaraz emateko alorrak	Euskaraz emateko ordu kop.	Gaztelaniaz emateko alorrak	Gaztelaniaz emateko ord. kop.	Proiektuaren eraginez zenbat ordu gehiago ematen den atzerriko hizkuntzan	
				Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak										

## c) Proiektu eleaniztunaren 2020/2021 ikasturteko garapeneren laburpena

Etapak	Maila	Taldea	Eredua A/B/D	Ikasle-kopurua		Proiektuan parte hartuko duten irakasleak		Ingelesez emateko alorrak	Ingelesez emateko ordu kop.	Atzerriko beste hizkuntza batean emateko alorrak	Atzerriko beste hizkuntza batean emateko ordu kop.	Euskaraz emateko alorrak	Euskaraz emateko ordu kop.	Gaztelaniaz emateko alorrak	Gaztelaniaz emateko ord. kop.	Proiektuaren eraginez zenbat ordu gehiago ematen den atzerriko hizkuntzan	
				Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak										

<sup>2</sup> Erabili kode hauek: Lehen Hezkuntza: 2; DBH: 3; Batxilergoa: 4.<sup>3</sup> Bete erregistro bat talde bakoitzeko.



d) Proiektua ebaluatzeko irizpideak. Emaitzak eta inpaktua neurtzeko adierazleak

e) Astero zenbat koordinazio-saio proiektuaren garapena bermatzeko.

f) Prestakuntza-ekintzak<sup>4</sup> (erantsitako fitxaren arabera zehaztuko dira prestakuntza-ekintzak):

.

JARDUERA.....
1.- Prestakuntza-jardueraren justifikazioa (proiektuarekiko erlazioa)
2.- Prestakuntza-jardueraren helburuak.
3.- Edukien definizioa.
4.- Jardueraren egitura: non egingo den, egutegia, orduak guztira, zati bereziak eta haien denbora-antolaketa.
5.- Jardueraren ebaluazioa, jarritako helburuen arabera: ebaluazio-irizpideak eta -adierazleak.
6.- Zer erakunde aurreikusi den prestakuntza-jarduera emateko.
7.- Prestakuntzaren aurrekontua, baldin eta erakunde pribatu batek ematen badu, edo proiektuari lotutako jarduerak egiteko aurrekontua, edo prestakuntzari laguntzeko materiala erosteko aurrekontua, eta justifikazioa.
8.- Eskatutakoa, guztira.

**PRESTAKUNTZA-JARDUEREN DATUEN LABURPENA – B MODALITATEKO HIZKUNTZA-PROIEKTUA:**

Jardueraren izena	Orduak	Plazak	AURREKONTUA		
			Prestakuntza-emailearen gastuak	Material-gastuak	Guztizko kostua jarduera bakoitzeko
				<b>B</b>	<b>modalitatean eskatutakoa, guztira</b>

<sup>4</sup> Fitxa bana erantsi aurreikusitako prestakuntza-jarduera bakoitzeko



**III. ERANSKINA**  
**ESKAEREN BALORAZIO TEKNIKOA EGITEKO BAREMOA**

**1.1. Lan-planaren balorazioa:**

- Diagnostikoa: - A modalitatea: o Hizkuntza bakoitzean izandako emaitzen datuak eta premiak aurkitzea o Hobekuntza-arloak, ikasleen emaitzen azterketatik abiatuta - B modalitatea: o Hizkuntza bakoitzean izandako emaitzen datuak... o Ikasle parte-hartzaileen datuak. o Irakasgaiak atzerriko hizkuntzan irakasteari lotutako premiak aurkitzea eta diagnostikoa egitea, ikasleen emaitzen azterketatik abiatuta.	- 2
- Lan-planaren eta diagnostikoan hautemandako beharriaren arteko erlazioa.	- 2
- Lan-planaren proposatutako helburuen argitasuna eta zehaztasuna.	- 2
- Berrikuntza-proiektua aurrera eramateko jardueraren proposamenaren zehaztasuna	- 2
- Prestakuntza-jardueren eta proiektuaren edo lan-plangintzaren arteko erlazioa.	- 3
-Berrikuntza-proiektuan proposatutako jarduerak zer ekarpen egiten dioten aldaketa metodologiko esanguratsua bati	- 3
- Proiektuan markatutako ebaluazio-irizpideen eta helburuen lorpenaren adierazlearen definizioa.	- 2
- Ibilbide estrategiko bat zehaztea epe laburrerako (2 urte)	- 2 -
<b>Gehienez ere</b>	<b>18 puntu</b>

**1.2. - Proposatutako prestakuntza-jardueren balorazioa:**

- Eskatutako aurrekontuaren eta proposatutakoaren arteko koherentzia.	- 1 -
- Prestakuntza-jardueraren justifikazioa. (Puntu 1 emango da prestakuntza-jardueraren zergatik proposatzen den azaltzen denean). Horri dagokionez, deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten jarduerak baino ez dira balioztatuko.	- 1 -
- Proposatutako helburuak eta prestakuntza-jardueraren elkarri egokitzea (Puntu 1 emango da helburuak bat datozenean eskatutako prestakuntza-jarduerarekin).	- 1 -
- Aurreikusitako edukien argitasuna eta zehaztasuna (Puntu 1 emango da prestakuntza-jardueraren bakoitzean garatuko diren edukiak zehazten direnean).	- 1 -
- Prestakuntza-jardueraren zehaztasuna eta ikastetxean aplikatzea	- 1 -
- Prestakuntza-jardueraren egitura zehaztea. (Puntu 1 emango da hauek aipatzen eta justifikatzen direnean: faseak, baldin badaude, egutegia, bereizitako parteak eta tenporalizazioa).	- 1 -
- Koherentzia ebaluazio-irizpide eta -adierazleetan (Puntu 1 emango da jarritako helburuekin bat datozen ebaluazio-irizpide eta -adierazle koherenteak aipatzen direnean).	- 1 -
<b>Gehienez ere</b>	<b>7 puntu</b>

**Gehieneko puntuazio globala: 25 puntu**

*Hau izango da proiektuaren balorazio orokorra: 1.1. atalean lortutako balorazioaren batura gehi 1.2. atalean lortutako balorazioaren batura, proposatutako prestakuntza-jarduerari dagokiena. Kanpoan geratuko dira 1.1 atalean 11 puntu lortzen ez dituzten eskariak.*







